

LABORANTZA HERRIKOI ETA IRAUNKORRAREN BIDEAN, LURRAMA

IRUÑEA, 2017/11/13

GARAZI GARCÍA

NEKAZARITZA INGENIARIA

Iragan berri den asteburu hontan, LURRAMA erakustazokak, urtero legez, bere atea ireki ditu hiru egunez, azaroaren 10-etik 12-ra, Miarritzeko (Lapurdi) *Halle d'Iraty* konbentzio zentroan.

Bertan programa zabala eta anitza izan da, mintzaldiak, produktu lokalen merkaturak eta ostatuak, kabal edo abere erakusketa, eragile alternatibo ezberdinen postuak, umeentzako jarduerak, bazkariak, animazioak... Ez dago aspertzetik 20.000 lagun ingururen bisita jasotzen duen ekitaldi honetan.

LURRAMA, berau antolatzen duen EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARAREN ildo berean, laborantza herrikoi, txiki, familiarra bultzatzen duten laborari eta eragileen eta hiritarren arteko topaketa bat da. Antolatzaile lanetan dabilen *Miren Harinordoki*-ren hitzetan, laborari eta eragileek, beraien jarduteko era erakusten dute bertan, nekazaritza eta abeltzantza herrikoi eta iraunkorari lotuta, baita kontsumitzeko eta ingurumenari lotutako manierak ere (ura, klima, bioaniztasuna...). Aurtengo aita-bitxia Philippe Pointereau (Nekazaritza Ingeniaria, agroekologian



aditua) izan da, lema "Bioaniztasunaz goza!", eta gonbidatu bereziak *La Confédération paysanne de Provence-Alpes-Côte d'Azur* sindikatua.

Lurramaren funtsa ulertzeko, ezinbestekoa da EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA elkartearen zer den jakitea, batez ere mugaz alde honetara gaudenak frantziar administrazioaren antolakuntza ezagutzen ez badugu. Frantzian, laborantza ganbarak (gurean landa garapenerako departamentu autonomikoak izan daitezkenak), departamentutik antolatzen dira; Gipuzkoa, Nafarroa eta Aragoi-ekin muga egiten duten lurraldeen departamentua, PIRINEO ATLANTIKOETAKO LABORANTZA GAN-

BARA "ofiziala" da, Ipar Euskal Herria eta Biarno hartzen dituen. *Harinordoki*-ren hitzei jarraiki, ganbara ofizialak sustatzen zuen agroindustriarekin guztiz desadostasun egonik, eta betiko mendi nekazaritza aurrera ateratu nahirik, orain 12 urte, EH-KO LABORANTZA GANBARA sortu zen, Ipar Euskal Herriko hiru probintzien eremua hartu zuena. Ez du dirulaguntza publikorik jasotzen eta misio desberdinak ditu: Nekazari gazteen instalazioen laguntzea, transmisioa bultzatzea, ekoizleak haien artean antolatzen laguntzea (salmentak egiteko, arraza bat sostengatzeko...), Natura 2000 proiektuak aurrera eramatea, laborari indibidualak laguntzea (instalazio paperekin,

Europako dirulaguntzekin...), eta hainbat proiektu gehiago.

Erakustazokan murgiltzean, bertako ekoizleez gain, nafar eta gipuzkoar batzuk ikusten dira ere, baratze produktuak, gasna, arnoa, ahatekiak, biperra, ogia, jusak, sagarnoa, ezta... adin guztietako ekoizleak, baita gazte aunitz ere. Gaztea ere, arto gorriaren ("Grand Roux Basque") berreskurapenean dabilen Lekor-netar nekazaria, haren hitzetan, ez da bakarrik ekoizpen ekologikoa, ez da bakarrik barietate lokal baten berreskurapena edo jatorri deitura bat, haientzat, hori guztiaz aparte ingurumenaren babesa eta elkartasuna da nekazaritza ulertzeko era, ureztatu gabeko lurrekin, hazi elkartruke doan eta 7-8 hektareatako etxalde txikiekin; funtzionatzeko manera honen adibide txiki bat baino ez da.


Joan aurretik ezin ekidin galdera garrantzitsu bat egitea: Eta nola dago laborantza hemen,

Iparralden? *Miren Harinordoki*-k ezin hobez azaldu du gaia, Baigorritar gazte honek, mahastizain lanetan aritutakoa eta laborantza Ganbarako kide eta laguntzaile dena, bere frutondo etxalde propioa jarri berri du martxan, ilusio bizia eskapatzen da haren hitzetatik; honela dio: [...] *ene ustez ezin daiteke izkutatu gaur egungo egoera ez dela errez, etxaldeen*

kanpotik datozenak, badira batzuk artzaintzari lotuko direnak (ez dela errez, kabalak erosi, etxaldea atzeman...) edo lur bat erosi eta baratzea jartzen dutenak; azken aldian baratzezain eta erlazain berri asko dago, lur gutxiago galdegiten duten produktuak direlako. Esanguratsuena hori bai, laborari berri gehienek biologikoan instalatu eta salmenta zuzenaz baliatzen direla.

12 urteko lanaren fruituak orain ikusten direlarik, aski onak direla argi dago, laborarien ofizioak duintasuna irabazi du, gazteen instalazio berriak eta transmisioaren hobekuntza nabariak dira,

kalitatezko produktuak arrakastaz sartu dira merkatuan, eta ingurumenaren zaintza eta ekoizpen ekologikoa errealitate bat da. Hala diote antolatzaileek eta haien modelo hegoalderantz, guregana, zabaltzeko gonbitea luzatzen dute.



transmisioa ez dela beti ziurtatua, baino biziki baikorra naiz, nekazariaren figura huntsa ikusia da eta elkarte ainitz dabilta lanean, laborantza biologikoan laguntzeko edo etxe ekoizpena sustatzeko. Badira haien etxaldea jarri nahi duten gazteak, etxeokari segitu edo